



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-07-18

VIURTEA 1.489.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Lehen germoplasma bankurako azpiegiturak martxan ditu Fraisorok

ZIZURKIL Landare hazien banku hau Gipuzkoako flora endemiko eta mehatxatuetan espezializatuko da

PROIEKTUA Foru Aldundiak eta La Caixak aurkeztu dute; finantza erakundeak 211.000 euro xedatuko ditu 6



Altzoazpiko Salbatore elizaren ikuspegia. N. URBIZU

GIPUZKOARI BURUZKO LEHEN AIPAMENA

ALTZO Altzoazpiko Salbatore eliza zaharrea Gipuzkoari buruzko aipamen zaharrenak aurkiztu zituzten 1025. urtean 4

Irura eta Anoetaren arteko zubia konponduko dute

IRURA Eskubiko espaloia hiru metro zabalduko dute, baranda aldatu eta errepidea estutuko dute 7

Boluntarioak behar dituzte
Kilometroetako egun nagusian lan egiteko

IRURA Tolosako Trianguloan mahaia jarriko dute bihar izena eman ahal izateko 7



Uda Gazteko ekitaldien baitan urezko parkera ere joan ziren, Frantzian. HITZA

Uda freskagarria izaten ari da Topagunekoentzat,

12. GARAGARDO AZOKA
Uztailaren 17tik 20ra



Ordutegia: 18:00etatik 1:00etara

VILLABONA

Z **Zurea da hitza**

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

Leaburuko jaiak

Kaixo herritarrok, Leaburuko San Pedro jaiak antolatzen aritu garen gazte taldea gara.

Zuengana zuzentzen gara gure eskerrik handiena luzatzeko aurtengo San Pedro jaietara bertaratu zareten guztiori.

Horregatik eta bereziki boluntario eskaini den guztiei, nahiz diru laguntza edo jenerotan lagundu duenari festa hauek ahalik eta ondoren gauzatu daitezten, hauei luzatu nahi diegu gure aipamen bereziak. Eta nola ez, Juan Jose Txaparreri hain afari ona prestatzeagatik.

Besterik gabe, jaso ezazue agur bero bat.

Leaburuko gazte taldea.

Nire semea oso gustura dago Usabalen

Tolosako guraso bat naiz eta Hitzako zatitxo hontan zerbait idaztea okurritu zait. Kontua da oso pozik naola Usabalen ireki duten zati berri horrekin. Egia esan beharrezkoa zen horrelako zerbait ze azkenaldin igerilekura joatea *Mision imposible* bihurtu zen, leku bat topatzea zaila zen, Kontxako hondartzak zirudien marea gora dagoenean.

Askotan kritika izan naiz Udalak egiten dituzten gauzekin eta behin baino gehiagotan idatzi izan dut gainera. Baina zerbait ona egiten denean ere jakin behar da onartzen. Nere semea behintzat oso gustura dago orain ur joko hoiekin eta ni lasaigato txoko berri horretan. Besterik ez, zorianak.

Idoia (Tolosa).

Aparkalekuarena, benetan lotsagarria

Ikusi dut atal honetan behin baino

gehiagotan aparkalekuei buruz hitz egiten dela. Honekin ondorioztatzen dut herritarrei asko arduratzen digun asuntua dela. Baina badirudi ez dela ezertxo ere egin, Udalak beharrik itxi eta ez entzunarena egiten duela. Benetan egoera zein lotsagarria den ikusteko Araba etorbideko (inguruan bizi naiz ni) argazki bat atera det ikusteko zeinen hutsa dagoen aparkalekua. Merezki al du lauroxka horien truke bizilagun guztien hasarrea eragitea? Nik argi daukat erantzuna. Orain bueltaka ibili behar det kotxea ezin aparkatu. Ea behingoz onartzen dezuten ez zela erabaki egokia izan aparkaleku hau OTA jartzea (40 tarre libre...). Benetan Tolosan ez al ditugu nahiko zerga ordaintzen. Ez da ba merkea... Lehengoan zaborren zerga etorri

ziztaidan: 66 euro. Iazkoa gordetzen eta hura begiratzera joan nintzen. Kontxo, 60 eurokoa zen. Urtebetean 6 euro gehiago, %10eko igotzea. Nere soldata, ordea, ez da hainbeste igo, ezta gutxiago ere. Nola ateratzen dituzte kontuak Udaltik? Zirkulazio zerga ere ez da hain nahikoa... Gipuzkoako herri garestienetarikoa omen da Tolosa. Eta hau ikusten ez dit harritzen! Ta gainera OTArekin diru gehiago atera nahi. Nahikoa da!

Tolosar bat.

TDTarekin zer gertatzen da?

Telebista berria erosi dut, TDTa duena. Baina konturatu naiz ezin dudala ezer ikusi? Noren esku dago

hori? Udalaren esku, ezta? Egin dezatela zerbait, ez da hain konplexua izango, ezta?

Xabi (Tolosa)

Garagardo Azokari zorianak

Irurako Garagardo Azokan egon nintzen eta dena oso ondo antolatuta zegoela iruditu ziztaidan. Giro herrikoian antolatuta baina gustura egon ginen. Eta aprobetxatu nahi dut, halaber, kilometroetakoek egiten duten lana goraiatzeko. Badakit batera eta bestera dabiltzala arropak eta saltzen eta Garagardo Azokan ere bertan ziren. Txalotzkoa herri guztia egiten ari den esfortzua.

Aitziber.

**Aparra beheraka****» Kale kantoitak**

Joxemi Saizar

Zerbeza festatik garagardo azokara goaz hila bete hone tan eskualdean. Lehen asteburuan Iruran izan zen, aurrekoan Alegian eta honetan Villabonan. Aparra bezala goraka joan ziren festa hauek bere neurriari iritsi direla dirudi. Ez da hasierako urte haietako jende zaparrada ikusten horrelako ekitaldietan. Batzuk aurtengo edizioa bertan behera utzketan aritu direla entzun dut. Borondateko lan asko egin beharrek ere zeresana izango du seguraski.

Herrietako jaiak udan izaten dira normalean, herri gehienetan behintzat. Ibarrek duela urte batzuk herri antzerkiaren bidea jarraitzea pentsatu dute aurtun Villabonan eta Alegian, herri konpartsak ateraz. Herritarren parte-hartzea da edozein festaren arrakastaren gakoa, horretan ez dago zalantzarik. Horrelako ekitaldiek hori lortzen badute, bejondeiela! Eta ekimen horiek euskal ohituretan oinarrituta baldin badaude, are eta hobeto.

Tourra Pirinioetan. Hori bai ikuskizuna. Zaleatasuna pizten duen horietakoa. Euskal selekzioaren aldarria ere hor izan da aurtun. Hori lortu gabe ere, gertuena duguna Euskadi-Euskaltel txirrindulari taldea izango da. Aurtun ez dira oso ondo ari, baina tira, horrelakoetan ikusten da afizioa.

Aurrekoan aipatzen nuen udako kultur lehorrea gure eskualdean. Eskerrak kostaldean dugun auzoan musikaren harribitxia dastatzeko aukera izan dugun: rockaren maisu zaharra beti bezain gazte, dena emateko prest, 40.000 lagun dantzan jarriz. Aupa Nagusi!

@ Irudietan. Eskualdeko ekitaldi ugariaren argazkiak dituzte gure webgunean ikusgai. Halaber, ekitaldi ezberdinen bideoak ere ikus ditzakezu gure webgunearen bitartez. Sar zaitze eta gozatu eskualdeko irudie ederrekin.

www.tolosaldekohitza.info

U **Urteurrenak****I. urteurrena
RAMON UGARTEMENDIA**

Etxea maite huen benetan, hori ezin inork ukatu azken amasa bertan emanik mundualdi hau bukatu

**Familiaren partetik**

Bere aldeko meza etzi, igandea, eguerdiko 12:00etan Tolosako San Frantzisko elizan.

TOLOSAN
2008ko uztailaren
18a

Tolosaldeko eta Leitzaaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

Inoiz baino dibertigarriagoa da Topaguneko uda

Aisia » Uda gazteko ekitaldien artean, bihar Lain talde billabonatarren kontzertua izango da 18:30ean, Kultur Etxean.

ESTI EZEIZA

Hara eta hona, batetik bestera dabiltza hilabete honetan Tolosako gaztetxoak, Topaguneko antolatutako ekintzei esker. Horieta bakoitzak Kultur Etxean bertan gauzatu dituzte, baina eguraldiak lagun dutenean behintzat kanpora atera dira. Pitxien tailerra, basket 3x3 txapelketa, irlara irteera eta zine emanaldia, dira besteak beste gauzatu dituzte jarduerak. Hauetako gehienak, gazteek proposatutakoak dira. Izan ere, ikasturtearen amaieran, nerabeek egindako eskaerei erantzunez prestatu dute udako egitaraua.

Antolaketa moduari esker, partaidetza anitza izan dute jarduerak. Koadrila ezberdinek hartu dute parte, honela, ekintza bakoitzerako 12-14 laguneko talde txoak osatu dira. Antolatzailak, oro har oso gustura daude erantzunarekin, «udarako altematiba bat emate

tea lortu baitugu». Bestalde, nahiz eta batzuek errepikatu, urtetik urtera, adin aldaketari esker, belualdi ezberdinetako neska-mutilek dute Topagunera hurbiltzeko aukera.

Irteera, kirol ekintza eta tailerrez gain, hilabete honetan zehar ere irekita dago Gazte Topagunea. Baina orain, asteartetik ostiralera dago zabalik, 16:30etik 20:30era. Ekintza bereziak dauden egunetan berriz, itxita egoten da.

Oraindik ere hilabetea amaitzeko

ko egun ugari geratzen dira, eta baita hainbat ekintza ere. Esaterako, gaur bertan, Villabonako Lain taldearen kontzertua izango da 18:30etik aurrera. Bihar berriz itxita egongo da Gazte Topagunea, baina astelehenean berriro irekiko dute ateak. Hala, izango da zer egunik hurrengo egunetan ere: pintxo tailerrak, billarra, ping-ponga, futbolina... izango baitira. Azkenik, hilaren 25ean itxiko dute ateak, oporrak hartu eta datorren ikasturteari indarrez ekiteko.



Gauzatu dituzten ekintzen artean, bitxi eta txalaparta tailerra izan dituzte; Arkatxonera ere joan ziren. HITZA



Baloia astinduz ibiliko dira bihar Bonberenean

Aisia » Hirugarren futbol txapelketa antolatu dute bertan, eta zortzi talde ariko dira lehian, 09:00etatik aurrera.

ERREDAKZIOA

Bonbereneako zelaietan, hirugarren futbol txapelketa jokatu da bihar. Bertan urte guztian zehar, Bonbereneakoekin harremana izan dutenek hartuko dute parte. Lehendabiziko partida 09:00etan hasiko da jokatzen eta hortik aurrera, egun guztian zehar izango dira norgehiagokak.

Iaz asteburu batean jokatu ziren gaztetxo nahiz helduen arteko txapelketa. Baina aurtun aste ezberdinetan egitea erabaki dute. Honela, joan den astean jokatu ziren gaztetxoaren partidak, eta bihar izango dira «ez hain gazteenak».

Partiden iraupena 30 minututakoa izango da, eta denera, zortzi talde ariko dira lehian. A multzoan, Makabidalabantar, Azkarrak, Oargi, eta Txoko-txiki taldeak. B multzoan berriz, Bonberenea, 74 granadas, Zato boys eta Sanblaspi-kokoak.

Hasteko, multzo bakoitzeko taldeen artean ligaxka bat jokatu da, denera 12 partida jokatu di-



lako txapelketako une bat. A. IMAZ

relarik. Azkena 16:20ean hasiko da. Ondoren, 17:00etan bi multzotako txapelketa arteko norgehiagoka jokatu da. Honen ostean, 17:40ean, bi azpitxapelketa artekoak. Azkenik, irabazlea nor den erabakitzeko, 19:00etan azken partidetan garaile izan direnak, aurrez aurre izango dira.

Bestalde, joan den asteburuan, gaztetxoagoen futbol txapelketa jokatu zen, eta ondorengo taldeak sailkatu ziren finalerako: PG eta Aitanoelak. Hori dela eta, bihar 18:20etik aurrera ikusiko da zein den bietan onena. Finala biharko uztea erabaki baitzuten antolatzailak.

Txapelketako zenbait arau

Partidak 30 minutukoak izango dira, 15 minutuko bi zati izango dituelarik. Kornerra eta alboko sateak hankarekin egin beharko dira, eta erdiko sateetan berriz, ezingo da zuzenean jaurtiketarik egin. Bestalde, atezainak ezingo du hankarekin atera eta jokalariek, nahi izanez gero, gomazko takoak erabil ditzakete. Azkenik, aipatzekoa da, txartel horia beharrean, hiru minutu kalera joango direla jokalariek. Txartel gorriaren kasuan berriz, honen orde, partidarako kanporaketa egingo da, eta bat gutxiagorekin jokatu beharko dute gainontzekoak.

ISKINA eta ETXEBERRIA
edaritegia

Goizean Sald
Gauetan martxa! INTERNET

San Juan, 51 eta 59 ALEGIA • Tel.: 943653097

berria bekak 2008

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: 8 beka, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: beka bat

Ezaugarriak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkarietazan

Ezaugarriak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainen duen egoitza nagusian

Eskarak aurkezteko epea: 2008-09-08

Eskara egiteko orria eta beka deiak www.berria.info helbidean dago eskuragai





Pedro Berta, Rafael Uribarren, Belen Perat eta Asier Arrese aurkezpen ekitaldian. Fraisoron barrena instalazioak, haziak barne, ikusi zituzten La Caixa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kideek. A. IMAZ

Landare hazien bankua aurkeztu dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta La Caixak

Zizurkil » La Caixa finantza erakundeak 211.000 euro xedatuko ditu Gipuzkoako lehen germoplasma bankurako.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta La Caixak landareen lehen germoplasma bankua aurkeztu zuten atzo Fraisoro ingurumen eta nekazaritza laborategian.

Bankua Gipuzkoako flora endemiko eta mehatxatuetan espezializatuta egongo da.

Gipuzkoako Foru Aldundiatik Landa Ingurunearen Garapeneko foru diputatua, Rafael Uribarren, eta Mendietako zuzendaria, Asier Arrese, egon ziren aurkezpenean. La Caixaren ordezkari bezala, Gipuzkoan negozio alorreko zuzendaria, Pedro Bartra, eta Gizarte Ekintzako Ingurugune eta Zientziako kidea, Belen Perat, agertu ziren atzo Fraisoron.

Germoplasma bankua

Germoplasma bankuak material genetikoaren bildumak dira, batez ere hazienak; hazi horiek tenperatura eta hezetasun baldintza jakin batzutan gordetzen dira, eta hala, material genetikoak luzaroan iraun dezake sordaldian.

Beraz, bankua espezieak atsenden egoera batean mantentzeko baliabide bat da, eta aurrerago, material freskoa behar denean ermentaraz daitezke, bai ikerketak egiteko edo baita ere beren ohiko habitatean sartzeko landareak eskuragarri izateko.

Fraisoron dagoen bankuaren xedea espezierik mehatxatuenak

berreskuratzea izango da, gaur egun, bihar edo etzi landare horiek bideragarriak izan daitezzen, eta oro har, Gipuzkoako landare ondarea zaintzea.

Landareek ez badituzte haziak edo espera bideragarriak egiten edo egin arren hazi horiek ezin bada luza luza gorde, landareen material genetikoak kontserbatzeko landare zelulen eta ehunen bankuetara jo behar da, *in vitro* ugalketa erabilita.

Bankua halako jardueretarako dauden elkarteetan sartuko da. Horien artean, besteak beste, basalandareen germoplasma bankuen Espainiako sarean.

Fraisoroko laborategia

La Caixa finantza erakundeak 211.000 euro xedatuko ditu Gipuzkoako germoplasma bakurako. Helburu honetarako genetika laborategi bat eraikiko dute. Flora endemikoa, bitxia eta mehatxatua kontserbatzen espezializatutako laborategi hau abian jartzeko, Fraisoro Itsasemendiko Nekazaritza Ikerketa Zentroan dagoeneko abian dauden azpiegiturak eta birtartekoak erabiliko dira.

La Caixa Gizarte Ekintzaren «karpene ekonomikoari esker» egingo dira instalazio hauek; «datozten urteetan 400.000 euro jarriko ditu fundazio horrek urteko».



Komunikabideen ikusmina piztu zuen atzoko aurkezpenak. A. IMAZ

Tolosaldeko komunikabide batek
**Kazetaritza edota
Euskal Filologian**
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.

Interesatuak deitu **661 67 88 17** telefono zenbakira



«Espetxeetako egoera» salatu dute

IBARRA » «Espetxeetan presoek bizi duten egoera» salatzen atzo Ibarako Kultur Etxearen alboan, elkarretarata egin zuten. *Alarma gorria espetxeetan, espetxe politika honi ez!* lelopean 50 lagun bildu ziren. Bertan

bihar Villabonako plazan 19:00etan egingo duten mobilizazioan parte hartzeko deialdia luzatu zuten. Antolatzaileen esanetan, «preso politikoei bizi duten egoera oso larria da». A. IMAZ

Aldundiak onartu du Irura eta Anoetaren arteko zubia konpontzea eta egokitzea

Irura » Eskubiko espaloia hiru metrotaraino zabalduko dute, baranda aldatu eta errepeidea estutuko dute.

IMANOL GARCIA

Irurako Udalaren eskarie bere fruitua eman dute eta Aldundiak onartu du Irura eta Anoetaren arteko zubia konpondu eta egokitztea. Proiektuaren arabera, eskubiko espaloia, Iruratik Anoetarako bidean, zabaldu egingo da, hiru metro izan arte egingo da eta zorua Iruratik zubiraino doan espaloia- ren berdina izango da. Baranda ere aldatu egingo dute eta espaloia- ren kanpotik utziko dute. Errepeidea zertxobait estutuko dute, trafikoa mantxoago joateko.

Marimi Ugalde Irurako alkateak azaldu duenez, «oso pozik» daude «aspaldidanik eskatutako» obrak egingo direlako. Lanak aurki hasiko dira eta irailaren amaierarako bukatuta egotea espero du alkateak, kilometroetako ibilbidea bertatik pasako baita.

Semaforoak eta geltokia

Errepeideen kontuetan, Irurako Udalak beste bi gai garrantzitsuen inguruan Aldundiaren esku hartzea espero du. Alde batetik, Kale Nagusian semaforoak jartzeara. Horren inguruan lanean ari dira, Aldunditik azaldu dutenez.

Beste gaia N-1 errepeidean dauden bi autobus geltokiena da, bata Trinketearen ondoan eta bestea Laskibar azoan. Aldundiak ez du ondo ikusten geltoki horien egoera, baina Ugaldek azaldu duenez, «oraindik ez dakigu noiz hasiko diren irtenbideak ematen».



Goitik hasita, Irura eta Anoeta arteko zubia, kale nagusia eta N-1 errepeidean dagoen autobus geltokia. I. GARCIA

Kilometroetakoek boluntarioak behar dituzte egun nagusirako

I. GARCIA

Kilometroak 2008ko antolatzaileak urriaren 5ean egingo den ekitaldi nagusira begira daude guztiz. Giza Baliabideen batzordekoak, esaterako, egun horretarako boluntario bila dabilta. Horretarako mahai bat jarriko dute bihar Tolosako Trianguloan, 11:00etatik 13:30ak ingurura, nahi duenak izena emateko. Eli Gorrotxategi da Gizarte Baliabideak batzordeko kideetako bat: «Jendea behar dugu egun nagusiarako eta animatu nahi dugu parte har dezaten bo-

luntario bezala. Horregatik jarriko dugu mahaia Tolosan».

Antolatzaileen kalkuluaren arabera 1.600 boluntario inguru behar dituzte festaren egunerako. Oraingoan 800 bat lagunek eman dute izena eta horregatik ari dira boluntario gehiagoren bila. Urriaren 5a gerturatu ahala jende gehiagok izena emango dutela espero dute, baina lehenbailehen izena ematera animatzen dute antolatzaileek, zerrendak betetzen joateko.

Hainbat batzordetan banatuta

dago Kilometroak 2008ko festaren antolakuntza eta bakoitzak dituen boluntarioen beharrak ezberdinak dira. Biher Tolosan jarriko dute mahaian, jendeak informazioa eskuratu ahal izango du batzorde bakoitzaren zereginaz, gero zeinetan izena nahi duen eman erabakitzeko.

Dagoeneko izena eman dutenen artean gehiengoak dira Irura eta Anoetako biztanleak, baina inguruko herrietakoak ere ari dira izena ematen, eskualdeko ikastolako guraso eta irakasleen kasu.

Danena-Olaederrakoak garaile, Zarautzen

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Danena-Olaederra Halterofilia Taldeak Zarautz Trofeoan parte hartu zuen kadete eta jubenil mailetan eta lehenengo postua lortu zuen taldekako sailkapen orokorrean, Kataluniako Mollins del Rey eta Galdakaoko taldeen aurrean. Banakako sailkapen orokorrean, Danenako Iker Hernandezek lehen postua lortu zuen eta Mikel Quintanak bigarrena. Jokin Urkizuk eta Adrian Sasiainek osatu zuten taldea.

Trofeoaren bukaeran Danena-Olaederra taldeko pultsularia izan zen Jon Tecedor gogoan izan zuten eta familiari omenaldi txiki bat egin zioten antolatzaileek plaka bat eta lore sorta bat eskainiz Tecedorren alargunari eta amari. Agurra ere dantzatu zieten. Danen-Olaederrakoek eskerrak eman zituzten antolatzaileei.

Danenako Absoluto taldeak bihar Basauriko Artunduagakiroldgian Basauriko Trofeoan parte hartuko du 12:00tatik aurrera.



Iker Hernandez ahalegin betean Zarautz Trofeoan. HITZA


Laburrak

Festetarako aurten ere Santio Krosa antolatu dute

VILLABONA » Aurten ere eta aurrekoetan bezala Villabonatik igarokoden XXVIII. Santio Krosa herrikoia antolatu dute Zumbeltz elkartekoek hilaren 25ean, festen baitan. Zumbeltz elkartea parean izango du irteera probak. Benjaminak hasiko dira lehenengo, 11:00etan. Buelta txiki bat emango dute. Alebinek 2 buelta txiki egin beharko dituzte. Infantilek eta kadeteek ibilbide nagusiari buelta bat eman beharko diote, hau da, 2,5 kilometro egingo dituzte. Juniorrek bi buelta emango dizkiote ibilbide nagusiari. Proba nagusikoek eta beteranok hiru buelta eman beharko dizkiote ibilbideari. Hain justu, ibilbide nagusia egingo dutenak 11:30ean hasiko dira proba egiten.

Presoen egoera salatzen manifestazioa bihar

VILLABONA » Garagardo Azoka dela aprobexatuz, eskualdeko manifestazioa antolatu du Tolosaldeko Amnistiaren Aldeko Mugimenduko Villabonan. Biher izango da, herriko plazatik abiatuta, 19:00etan eta presoen egoera salatuko dute: Mikel Ibañez larri gaisorik minbiziarekin, Pello Odriozolari «bizi guztirako espetxealdia aplikatu diote» eta gogan izango dute ere epaiaren zain dagoen Julen Zelarain billabonatarrak. «Gai guzti hauek, estatu espainolak Euskal Herriaren aurka daraman estrategiaren ildo garbi bat adierazten dute», azaldu dute antolatzaileek. Bestalde, Villabonan preso eta iheslarien inguruan egitaraua antolatu dute jaietarako.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Alegia.** Egitarau ofiziala:
09:00etan diana eta jubilatuen mendi martxa; 11:00etan hamai-ketako; ondoren Lazkano eta Amaia Agirre bertsoariak; 17:30ean ume jokua; 18:00etan jubilatuen patata tortilla txapelketa; 19:00etan sagardo kupela; 21:00etan txekor-jatea eta 23:00etan Drindots. Egitarau alternatiboa: 14:30ean herri bazkaria; iluntzean Mulanborekin poteoa; 20:30ean zahagiardoa; 24:30ean Gas (su malabarak); gauean Puto punki, Raperos de Emaus eta MAK (Musika Armatu Komandoa) taldeen kontzertuak eta ondoren. DJak.
■ **Leitza.** Gozamenek festa eginen dute herriko igerilekuan 22:00etatik 00:30 bitarte gazteei zuzenduta dago: mozorroak, ur jolasak, musu lasterketa, musika, bideoklipak...

Deialdiak

■ **Tolosa.** Aparteko Osoko Bilkura 08:00etan udaletxean. Udalarri dagokion kreditu aldaketarako espediente onartzea eta Kultura eta Gazteria Departamentuko burua lanpostuaren betebeharen baten aldi baterako aldaketa eta aipatu lanpostua betetzeko erabakia izango dira gaiak.
■ **Altzo.** Urtekariaren aurkezpena egingo dute ostiralean: deialdia irekia da, herritar guztiak joateko. Ondoren Elordi elkartearen lancha izango da

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.



Kañoeroak jarri dituzte martxan

VILLABONA • Atzo arratsaldean ireki zituen atek Irrintzi elkarteak antolatzen duen Garagardo Azokak. Aurten hamabigarrena da eta urtero bezala eskaintza handia dute garagardoetan. Saltxitxak eta ukondoak ere

ez dira faltako garagardoari laguntzeko. Igandera arte iraungo du azokak eta egunero 18:00etan irekiko dituzte Irrintziko kideek atek, garagardoa eta janaria zerbitzatzeko prest. I.GARCIA

A Agurrak



Urte askoan!

Jon Ander Peña Olazabal (Tolosa). Gaur 11 urte. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Urte askoan!

Ianitz Irastorza Telletxea (Amezketeta). Gaur urtebete. Zure lehengusu zahar guztien partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

hitza info

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.

Harpideduntzat %25 merkeago

kilometroak
2008 Inauri

Boluntarioek izena emateko eguna eta lekua uztailaren 19an. Tolosako triangelu plazan Zatoz eta eman izena

www.kilometroak.net